# EUSKO JAURLARITZA ETA EUSKADIKO SOFTWARE LIBREKO ENPRESEN ELKARTEAREN (ESLE) ARTEKO ESPARRU HITZARMENA

# CONVENIO MARCO ENTRE EL GOBIERNO VASCO Y LA ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE SOFTWARE LIBRE DE EUSKADI (ESLE)

## BATZARTUTA

Alde batetik, Eusko Jaurlaritza (helbidea: Donostia-San Sebastián kaleko 1 zenbakia, 01010 posta kodea, Gasteiz, Araba) eta haren izenean, Justizia eta Herri Administrazio Saileko sailburua den heinean, Idoia Mendia Cueva andrea.

Bestetik «Euskadiko Software Libreko Enpresen Elkartea» (helbidea: Landaberde kaleko 15 zenbakia, 01010 posta kodea, Gasteiz, Araba) ESLE, aurrerantzean, G01390780 IFK duena. Haren izenean, Elkartearen burua den heinean, Daniel Armendáriz Crespo jauna, kargu horretarako izendatua izan ondoren bertan indarrean jarraitzen duela, adierazten baitu.

Bakoitzak dituen ahalmenez baliaturik eta elkarrekin ados daudela, alderdiek elkarri ahalmen nahikoa aitortzen diote esparru-hitzarmen hau emateko eta honako hau

## ADIERAZI DUTE

Eusko Jaurlaritzaren ustez, Administrazio Elektronikoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz herritarrei eta enpresei zerbitzu eraginkorrago eta hurbilagoa emateko helburua duen jarduera bat eta, horretarako, tresna horiek sustatuko ditu Software Librea erabiliz.

Software librea da exekutatzeko, iturburu-kodea ikusteko, hura aldatu edo hobetzeko eta beste erabiltzaileei kopiak birbanatzeko askatasuna ematen duen lizentzia batekin banatzen dena. Halakoa bereizten duena lizentzian adierazitako baldintzetan datza. Beraz aldea dago alderdien (erabiltzaile eta erabiltzaileen) eskubide eta betebeharrei buruzko baldintzetan eta, halaber, lizentzia banatzeko ezartzen direnetan ere, baina

## REUNIDOS

De una parte el Gobierno Vasco, con domicilio en Calle Donostia-San Sebastián, 1, C.P. 01010 de Vitoria-Gasteiz, (Álava), representado por Dña. Idoia Mendia Cueva, en su calidad de Consejera de Justicia y Administración Pública.

De otra parte, la asociación denominada «Asociación de Empresas de Software Libre de Euskadi / Euskadiko Software Libreko Enpresen Elkartea», en adelante, ESLE, domiciliada en Landaberde, 15, C.P. 01010 de Vitoria-Gasteiz (Álava), y con CIF número G01390780, representada por Don Daniel Armendáriz Crespo, en su calidad de Presidente de la misma, cargo para el que fue nombrado y asegura vigente.

Las partes se reconocen capacidad suficiente para otorgar el presente Convenio Marco, y actuando en virtud de las competencias que cada uno ostenta, de común acuerdo

## EXPONEN

Que el Gobierno Vasco, entiende la Administración Electrónica como una actuación orientada a ofrecer a la ciudadanía y las empresas un servicio público más eficiente y próximo, mediante la utilización de las nuevas Tecnologías de la Información y las Telecomunicaciones, siendo parte integrante del impulso de estos instrumentos el uso del Software Libre.

Que se entiende por Software Libre aquél que se distribuye con una licencia que permite la libertad de ejecutarlo, de conocer el código fuente, de modificarlo o mejorarlo y de redistribuir copias a otros usuarios. Lo que le distingue son las condiciones plasmadas en la licencia relativas a derechos y deberes de las partes, proveedor y usuario, bajo las cuales se distribuye; la diferenciación no se produce, por tanto, por su

ez, ordea, izaera teknologikoan edo software eskuratzeko kosturik egotean edo ez. Software librea eta iturri irekietakoa edozein software da baldin eta sortua edo neurrira garatua delarik, askatasunez jokatzeko lehenago aipaturiko lau jokabide edo egintza ahalbidetzen dituen lizentzia batekin banatzen bada.

Softwarearen sortzaile eta hartzaile den Herri Administrazioaren ikuspegitik hartuta, lehenago aipaturiko lau askatasunak erabiltzeak, gauzatzekoa, ezagutzekoa, aldatzekoa eta birbanatzekoa, alegia, estrategikoki sekulako ondorioak ditu herri-aginpideetaz baliatzeko aplikazioetan, eta batez ere Administrazio Elektronikoan, eta eragin badute interes orokorraren defentsan, gardentasunean, eraginkortasunean, independentzia teknologikoa, zerbitzuak eskuratzean, segurtasunean, herritarrekiko harremanetan, programa eta aplikazioen kontrolean, euskarri elektronikoan informazioa eskuratu eta gordetzean, eta, azken batean, bata bestearen ondotik izan diren aldi teknologietan zehar edozein herri administraziok bilatu nahi dituen lau ikuspuntu operatiboetan, hala nola, hautaketa-askatasunean, inbertsioaren babesean, prezio/etekinaren arteko harreman onenean eta komunikatu eta elkarrekin jarduteko bermean.

Europar Batasunean herri administrazioak jarduerak garatzen ari dira software libreari dagokionez politika erabaki eragileak antolatze aldera. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak uste du eremu honetan jardun behar duela erreferentzia bezala aurreko aitzindari hauek hartuta: iturri irekietako softwarera migratzeko IDA (Administrazioen arteko datu-trukaketa) jarraibideak; IDA programaren azterlana iturri irekietako programei buruz; Elkarreraginerako Europar Esparrua edo aginpideak baliatzeko erabiltzen diren aplikazioen normalizaziorako, zaintzarako eta segurtasunerako irizpideak. Horiek, hainbat neurri aurreikusten dute antolamendu eta teknika ikuspuntutik Estatuaren Administrazio Orokorraren prozedura administratiboak, betiere baliabide elektroniko,

naturaleza tecnológica o porque haya coste o no en la adquisición del software. Es Software Libre y de fuentes abiertas cualquier software, todo software, producto o desarrollo a medida, que se distribuya con una licencia que permita el ejercicio de las cuatro libertades citadas.

Que desde la perspectiva de la Administración Pública, ente generador y receptor de software, el ejercicio de las cuatro libertades de ejecución, conocimiento, modificación y redistribución tiene consecuencias de calado estratégico en las aplicaciones para el ejercicio de potestades públicas y, en particular, en la Administración Electrónica, que afectan a la defensa del interés general, a la transparencia, a la eficacia, a la independencia tecnológica, al acceso a los servicios, a la seguridad, a la relación con los administrados, al control sobre los programas y aplicaciones, al acceso y conservación de la información en soporte electrónico, y, en definitiva, a cuatro aspectos operativos perseguidos por toda Administración Pública a lo largo de sucesivas oleadas tecnológicas, como son la libertad de elección, la protección de la inversión, la mejor relación precio/rendimiento y la garantía de comunicación e interoperabilidad.

Que en la Unión Europea las Administraciones Públicas vienen desarrollando actividades para configurar políticas y decisiones operativas en relación con el Software Libre; por eso, el Gobierno Vasco entiende necesario actuar en este campo, teniendo como referentes precedentes similares: las Directrices IDA de migración a software de fuentes abiertas; el Estudio del Programa IDA sobre el uso de los programas de fuentes abiertas; el Marco Europeo de Interoperabilidad o los Criterios de Seguridad, normalización y conservación de las aplicaciones utilizadas para el ejercicio de potestades, que proporcionan un conjunto de medidas organizativas y técnicas en relación con los requisitos legales para la validez y eficacia de los procedimientos administrativos de la AGE

informatiko eta telematikoak erabiltzen badituzte, baliagarriak eta eraginkorrak izan daitezen eta aurreikusten da estandar ireki, software libre eta iturri irekien erabilpena.

(Administración General del Estado) que utilicen medios electrónicos, informáticos y telemáticos, contemplándose la utilización de estándares abiertos y de Software Libre y de fuentes abiertas.

ESLE Elkartearen helburuen artean software librea sustatu eta bultzatzea dago eta horretarako software librean oinarritutako ikerkuntza eta teknologien garapena sustatuko da.

Que ESLE es una Asociación entre cuyos objetivos se encuentran la promoción y divulgación del uso del Software Libre, fomentando la investigación y el desarrollo de tecnologías basadas en Software Libre.

Hori dela eta, software librearekin loturiko proiektuak, merkatu-azterlanak eta aholkularitzako txostenak eta I+G helburu duten ekintzak bultzatuko ditu eta lizentzia eta estandar irekiei dagokienez aholkularitzan dihardu.

Así, promociona proyectos relacionados con Software Libre, estudios de mercado e informes de consultoría, acciones orientadas al I+D en este campo, y ejercitan el asesoramiento en el campo de licencias y estándares abiertos.

Orain arte adierazitako guztiarengatik, alderdiek esparru-hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmen horren klausulak:

Por todo lo manifestado, las partes acuerdan suscribir el presente Convenio Marco, que se regirá por las siguientes

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

### LEHENENGOA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da software librearen alorrean Eusko Jaurlaritzaren eta ESLE arteko lankidetza-esparruaren oinarrizko ildoak ezartzea. Ildo horiek aintzat hartuko dira hitzarmen hau garatzeko helburuz geroago sinatzen diren hurrengo hitzarmenetan. Hori dela eta, bi alderdiek beren gain konpromisoa hartu dute software libreko bikaintasuneko euskal sare bat sortu, indartu eta finkatzeko.

### PRIMERA.- OBJETO

El presente Convenio tiene por finalidad fijar las líneas básicas del marco de colaboración en el campo del Software Libre que se establece entre el Gobierno Vasco y ESLE, y que serán tenidas en cuenta por los Convenios Sucesivos que se firmen en el desarrollo del mismo. Ambas Partes se comprometen, así, a coordinar sus esfuerzos para crear, fortalecer y consolidar una red vasca de excelencia de Software Libre.

### BIGARRENA.- HURRENGO HITZARMENAK

Hitzarmen hau esparru eta oinarri hartuta, elkarrekin ados bete beharreko jarduera zehatza erabakiko dute alderdiek hurrengo hitzarmena sinatuz. Hitzarmen horretan alderdien eskubide eta betebeharrak ezarriko dira eta, gainera, espresuki haren finantzaketa zein alderdik eta zein zenbatekotan hartzen duen.

ESLEk bere baliabideak erabili ditzake edo beste batenak baldin eta jarduera zehatz bat bete behar badu.

### SEGUNDA.- CONVENIOS SUCESIVOS

Teniendo como marco el presente Convenio, las Partes decidirán de mutuo acuerdo la actuación concreta a acometer mediante la firma del correspondiente Convenio Sucesivo en donde se establecerán los derechos y obligaciones de las Partes y de manera expresa qué Parte y en qué cuantía asume la financiación de la misma.

ESLE podrá emplear sus propios medios o valerse de ajenos cuando esté obligada a llevar a cabo una determinada actuación.

## HIRUGARRENA.- JARDUERAK SUSTATZEA, LANKIDETZA ETA INFORMAZIOA ELKARRI EMATEA

Bi alderdiek batera sustatuko dituzte Hitzarmen honen xedea lortzera zuzendutako ekintzak nahiz software libre gaietan Ikerketa eta Garapenaren (I+G) ingurukoak. Horrela, bi alderdiek elkarri emango diote beharrezko lankidetza eta beharrezkoa den edozein informazioa.

## TERCERA.- PROMOCIÓN DE ACTUACIONES, COLABORACIÓN E INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN

Las Partes promoverán conjuntamente aquellas actuaciones encaminadas a la consecución del objeto del presente Convenio, como las relativas a la Investigación y Desarrollo (I+D) en materia de Software Libre. Así, ambas Partes se prestarán la colaboración necesaria y se proporcionarán toda la información que sea precisa.

## LAUGARRENA.- LANKIDETZAREN PUBLIZITATEA

Alderdiak behartuta egongo dira software librearen eremuan Eusko Jaurlaritzak eta ESLEk elkarrekin lankidetzan jarduteko Esparru Hitzarmen hau espresuki aipatzera software librearekin loturiko gai interesgarrietan azterlanak, txostenak eta ikerlanak planifikatzeari, antolatzeari eta gauzatzeari dagokienez, argitaratu daitezen edukiak prestatzea barne dagoela. Hori guztia, batez ere ekintzak badira prestakuntzako jardunaldiak, zientifikoak eta dibulgaziozkoak egitea, berariazko ikastaroak antolatzea, mahai-inguruak, lantegiak edo software librearen inguruan abangoardiako gaiei buruz. Barne sartuta dago ekintza horien erregistroa hainbat baliabide eta formaturen bidez berriro erabiltzeko.

## CUARTA.- PUBLICIDAD DE LA COLABORACIÓN

Las Partes se obligan a hacer mención expresa al presente Convenio Marco de colaboración entre el Gobierno Vasco y ESLE en el campo del Software Libre en la planificación, organización y ejecución de estudios, informes e investigaciones en temas de interés relacionados con el Software Libre, incluyendo la elaboración de contenidos para su publicación; en especial, cuando se trate de la realización de jornadas divulgativas, científicas y formativas, organización de cursos específicos, mesas redondas, talleres u otras actividades sobre temas de vanguardia en el ámbito del Software Libre, incluyendo el registro de estas actividades para su reutilización, haciendo uso de diversos medios y formatos.

## BOSGARRENA.- ISILPEKOTASUNA

Honen ondoren izan daitezen hurrengo hitzarmenak sinatzearen ondorioz, alderdi bakoitzak bestearengandik lortzen duen edozein informazio eta agiri isilpekoa izango da eta ezin da beste edonori jakinari ezta argitaratu ere, akordioaz bi alderdiek erabakitzen duten moduan edo baldintzetan ez bada salbu. Isilpeko informazioa izatetik salbuetsiko da Lege batek agintzen duelako, edo ebazpen judizial batetan jasotzen delako edo, eskumena duen agintari batek eskatzen duelako adierazi edo erakutsi behar den hura.

## QUINTA.- CONFIDENCIALIDAD

Toda la información o documentación que cada una de las Partes obtenga de la otra con motivo de la suscripción de los respectivos Convenios Sucesivos tendrá carácter confidencial y no podrá ser comunicada a terceros o publicada si no es en los términos o condiciones que las mismas acuerden. Se excluye de la categoría de información confidencial aquella que deba ser revelada de acuerdo con las prescripciones de una Ley o en virtud de lo contenido en una resolución judicial o así lo exija una autoridad competente.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKADIKO SOFTWARE LIBREKO ENPRESEN ELKARTEA esle ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE SOFTWARE LIBRE DE EUSKADI

## SEIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da, Eusko Jaurlaritzako bost ordezkariz eta ESLEren bost ordezkariz osatutakoa. Eusko Jaurlaritzako kideen artean organoaren buru gisa Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Herri Administrazio Sailburuordetzako Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendaria egongo da, edo bestela, hark ordezko izendatzen duena.

Jarraipen Batzordeari honako hauek dagozkio:

1. Esparru Hitzarmen honetan eta sinatzen diren hurrengo hitzarmenetan jasotzen diren klausuletan ezarritako betebeharrak betetzen direla ikuskatu eta dagokien jarraipena egitea.
2. Esparru Hitzarmen honetan eta geroago sinatzen diren hurrengo hitzarmenetan jasotzen diren klausulak interpretatzea.
3. Esparru Hitzarmen hau eta geroago sinatzen diren hurrengoak aplikatzeko agertzen den edozein auzi ebaztea.
4. Hitzarmen honen esparruari jarraituz garatu behar diren ekintza zehatzak ezartzea. Ekintza horiek dagokion hurrengo hitzarmena sinatzea ekarriko dute. Garatu beharreko ekintzen artean honako hauek daude:
   a) Mahaigainak eta aplikazio orokorrak nahiz hezkuntzakoak aztertzea.
   b) Migratzeko aukerak.
   c) Software librean oinarrituriko aplikazioen erabilpenari buruzko prestakuntza.
   d) Proiektu gidariak eta zerbitzuen eta teknologien gaineko erakustaldiak.

Klausula honen 4. puntuan jasotako funtzioa betetze aldera, batzordeburuaren eskariz eta

## SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Se constituirá una Comisión de Seguimiento del presente Convenio que estará integrada por cinco representantes del Gobierno Vasco, entre los que se encontrará el Director de Informática y Telecomunicaciones de la Viceconsejería de Administración Pública del Departamento de Justicia y Administración Pública o persona en quien delegue, que ostentará la presidencia del órgano, y cinco representantes de ESLE.

Corresponderá a la Comisión de Seguimiento las siguientes funciones:

1. El seguimiento y evaluación del cumplimiento de las obligaciones contenidas en las cláusulas del presente Convenio Marco y en los Convenios Sucesivos que se firmen.
2. La interpretación de las cláusulas del presente Convenio Marco y de los Convenios Sucesivos que se firmen.
3. La resolución de cualquier controversia que se presente con ocasión de la aplicación del presente Convenio Marco y de los Convenios Sucesivos que se firmen.
4. El establecimiento de las acciones concretas a desarrollar en el marco del presente Convenio y que se traducirán en la firma del correspondiente Convenio Sucesivo. Entre las acciones a desarrollar se contemplarán las siguientes:
   a) Estudio de escritorios y aplicaciones generales y educativas.
   b) Posibilidades de migración.
   c) La formación en la utilización de las aplicaciones basadas en el Software Libre.
   d) Proyectos piloto y demostraciones de servicios y tecnologías.

En orden a cumplir con la función contemplada en el punto 4 de la presente cláusula podrán

teknikari laguntzaile gisa, Batzordearen bileretara joan daitezke dagokion hurrengo hitzarmenaren helburuko ekintza zehatza definitzeko esperientzia eta ezagupenak eman ahal dituztenak.

acudir a las reuniones de la Comisión, a requerimiento de su Presidente y en calidad de técnicos asesores, aquellas personas que se entienda que pueden aportar conocimientos y experiencias de interés para perfilar la acción concreta sobre la que tratará el correspondiente Convenio Sucesivo.

## ZAZPIGARRENA.- INDARRALDIA

Sinatzen denetik, lankidetzarako esparru hitzarmen honek hartuko ditu indarra eta ondorioak eta 2009ko abenduaren 31ra arte iraungo du. Geroago, baldin eta hilabete bat lehenago iraungi baino idatziz jakinaraziz alderdi batek aurkakorik adierazten ez badu, egutegiko urteka automatikoki luzatuko da.

## SÉPTIMA.- VIGENCIA

El presente Convenio Marco de colaboración comenzará a desplegar los efectos inherentes al mismo desde el momento de su firma y su duración será hasta el 31 de diciembre de 2009, prorrogándose automáticamente por años naturales salvo denuncia de las Partes comunicada por escrito con un mes de antelación a la expiración del mismo.

## ZORTZIGARRENA. - BETEBEHARRAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Baldin eta bi alderdietako edozeinek esparru hitzarmen honetan edo, geroago, sinatzen diren hurrengo hitzarmenetan bere gainean harturiko betebeharrak beteko ez balitu, hitzarmena bete egin duen alderdiak ahalmena izango du Hitzarmenean ezarritakoa bete dadila eskatzeko edo, bestela, Hitzarmena suntsiarazteko. Batean zein bestean aukera izango du sorturiko min eta kalteen ordaina jasotzeko.

## OCTAVA.- EFECTOS DEL INCUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES

El incumplimiento por cualquiera de las Partes firmantes de las obligaciones asumidas por cada una de ellas en el presente Convenio Marco, o en los Convenios Sucesivos que se firmen con posterioridad, facultará a la parte que haya cumplido para exigir el cumplimiento de lo acordado u optar por la resolución del Convenio suscrito, con resarcimiento de los daños y perjuicios que el incumplimiento le haya ocasionado en cualquiera de los dos casos.

## BEDERATZIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Lankidetzarako Esparru Hitzarmen honek eta, berau garatzeko helburuz sinatzen diren hurrengo hitzarmenek izaera administratiboa dute, eta beren klausuletan xedatutakoaren arabera arautzeaz gain Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatutakoari jarraituko diote.

Esparru Hitzarmen hau edo geroago sinatzen diren hurrengo hitzarmenetan aplikatzeko garaian sortzen diren auziak, baldin eta Jarraipen Batzordeak ezin baditu ebatzi,

## NOVENA.- REGIMEN JURÍDICO

El presente Convenio Marco de colaboración y los Convenios Sucesivos que se firmen en desarrollo del mismo tienen naturaleza administrativa, rigiéndose, además de por lo dispuesto en sus clausulados, por lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Aquellas cuestiones controvertidas sobre la aplicación del presente Convenio Marco o de cualquiera de los Convenios Sucesivos que se firmen que no puedan ser resueltas por la

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren menpe ipiniko dira hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Comisión de Seguimiento se someterán a la Jurisdicción Contencioso-Administrativa de conformidad con su Ley reguladora 29/1998, de 13 de julio.

Eta, adostasun-proba gisa, aldeek Hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan aipaturiko lekuan eta egunean.

Y en prueba de conformidad, las partes firman el presente Convenio por duplicado, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko azaroaren 25ean

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de noviembre de 2009

**Izpta/Fdo.: Idoia Mendia Cueva**
**Justizia eta Herri Administrazioko sailburua**
**Consejera de Justicia y Administración Pública**

**Izpta/Fdo.: Daniel Armendáriz Crespo**
**ESLE-ren burua**
**Presidente de ESLE**